



## <HYPERCONNECTADXS>

*„Technology is not neutral. We're inside of what we make, and it's inside of us. We're living in a world of connections — and it matters which ones get made and unmade“.*

*Donna Haraway. A Cyborg Manifesto*

Hiperkonektagarritasunak zeharkatzen gaitu. Egunero-egunero informazioa jasotzen dugu iturri pila batetatik, eta informazio hori zabaltzen laguntzen dugu, retweet-en bidez partekatuta edo beste batzuei bidalita. Gertakariak zuzenean ikusten ditugu, soinudun abisuen eta etengabeko bibrazioen bidez. Whatsappeko mezuak eta egunean zehar behin eta berriro iristen zaizkigun memeak dira denboraren iragatearen ezaugarri.

Elkar ukitzen ez badugu ere, elkar ikusten dugu eta gure gorputzak elkartuta daudela sentitzen dugu. Paradigma berri honek gorpuzgabetu egiten gaitu indibidualki, eta, aldi berean, berreraiki egiten gaitu, denok aldi berean sentitzeko. Geure buruari galdetzen diogu nola eragiten duen sarearen barruan bizitzeak, sinbiosi bidez konektatutako nodoak izateak kaosaren autobidean, Interneteko tentakuludun teknologiari esker. Wikileaks, “atsegin dut”-aren ekonomia eta webgunearen materialtasuna protagonista dira gure orainaldian: telepresentzien eta teleobedientzien gizartean bizi gara.

Hyperconnectadxs lanean, bi artistak ikus-entzunezko konposizio bat osatzen lan egiten dute, urruneko bi lekutatik. Bitartean, robot batek historia aldarazi zuten eskulturak erreproduzitzen ditu museo huts batean zehar, koreografia sinfoniko baten bidez. Selfiearen kultura honetan, gure bizitzak eta gainerakoenak ezagutarazten ditugu mugikorren kameraren bidez, oraindik ez baititugu estali, ordenagailu eramangarrienak bezala. Mahaigainetik egiten dugu lan, eta horrek bereizten ditu, hain zuzen, gure errealitate ukigarria eta “hodei” deitzen dioguna. Baina hodei horrek, zeina ezkutuko kable eta zerbitzariz betea baitago, karbono dioxidoa isurtzen du etengabe. Papereko dokumentuen herentzia da, inprimategiaren hurrengo kapitulua, orain Mbyte eta kutsadura-gramoetan neurtzen duguna.

Oraingoan, arteak okupatu ditu leiho digitalak, normalean saltzeko diren telefono mugikor, telebista eta pantaila gisa sortuak, gure etxeak gaininformaziotik eta aisialdi gidatutik deskolonizatzeke eta horien ordez pentsamendu kritikoa sustatzeko. Euskarri digital berri horiek komunikatzeko gaitasun handiagoa eman diote gizarteari. Artistek museoetatik haragoko formatuak onartu dituzte eta horiek esploratuz lan egiten dute, konexioaren kontzeptua aplikatuz eta Interneten hiru ezaugarriekin: material kritikoa (eta problematika, bere horretan), ekoizpen-tresna eta erakusketa-euskarria. Horri 2020an hasitako ezohiko egoera hau gehitu zaio, eraldaketa berriak sortuz, eta, ondorioz, artearen esparruan olatu zibernetiko-biriko honi buruzko hausnarketa ari da sortzen. Nor, nola eta



noiz konektatzen den. Eta nork ezin duen konektatu, nor dagoen beste aldean eta nor ez, nork entzuten eta begiratzen duen, nork partekatzen duen eta nork zentsuratzen. Zenbateko askatasuna ematen digun hiperkonektagarritasunak, eta zenbatekoa kendu.

Hyperconnectdxs lanak bost proposamen artistiko biltzen ditu; batzuk berriak dira eta beste batzuk berraktibatu egin dira, horien berrirakurketa garaikidea egin baitaiteke une honetan, komunikazio-iraultzaren eta ideologia informatikoaren garaian. Eta proposamen horiek esploratzen ditu, jakinik online erakusketa batek abantaila kuantikoak dituela, museoko hormak desagertu egiten baitira, “ni”-aren truke. Artelanak ez du kokapenik, joaten garen lekura etortzen da gurekin. Leiho digital bat dagoen edozein lekutan ireki eta goza dezakegu; espero gabeko lekuetan geureganatu, utzi eta berreskuratu dezakegu, eta gure ustez egon behar duen lekuan kokatu. Denbora propioak ere baditu; artelanak hainbat egunetan goza ditzakezu, bat bestearen atzetik, edo denak batera zabalduta (hainbat fitxatan). Hala, espazio pertsonalak edo komunak erakusketa-gela bihurtuko dituzu, eta artelan guztiez aldi berean gozatu. Behingoagatik, gutako bakoitzak aukera ditzake denbora eta espazioa.

#OccupyYourTv  
#OccupyScreens  
#OccupyMobiles

**Jaime de los Ríos**  
**Komisarioa**